

EUSKO JAURLARITZA  
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta  
Ingurumen sailburua  
DONOSTIA KALEA 1  
01010 VITORIA-GASTEIZ

Jakinarazten dizut Alkateak, 2022ko maiatzaren 6an honako Dekretu hau eman duela:

“Tinko Ingeniaritza SLU” enpresako (IFZ: B-75013896) jaunak (NAN: ), “Greene Waste To Energy, SL” enpresaren izenean (IFZ: B-54543525), 2021eko ekainaren 11ko udal-erregistro sarrerarekin, Larramendi industrialdeko H partzelan industriarako karga mineralak ekologikoki ekoizteko planta bat ezartzeko hirigintza-kontsulta aurkeztu zuen (esp. 351/21 – 021HIKO0020).

Udal arkitekto zerbitzaburuaren txostenari jarraituz, alkateak 2021eko uztailaren 23an emandako dekretu baten bidez honako hau erabaki zuen:

- 1.- *Udal arkitekto zerbitzaburuaren txostena ontzat ematea eta, horrenbestez, erantzun gisa “Tinko Ingeniaritza SLU” enpresako jaunari jakinaraztea, “Greene Waste To Energy, SL” enpresaren izenean.*
- 2.- *Erantzuna jakinaraztea (udal arkitekto zerbitzaburuaren txostenarekin batera) “Tinko Ingeniaritza SLU” enpresako jaunari, “Greene Waste To Energy, SL” enpresaren izenean.*

2021eko irailaren 23an EAEko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariaren iragarkia, non horren bidez jendaurrean jartzen den “Valogreene Paper BC, S.L.” enpresak aurkeztutako proiektu teknikoa eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterlana, Bergarako udalerrian arriskutsuak ez diren hondakinak kudeatzeko jardueraren ingurumen-baimen integratua eskatzeko.

Udal arkitekto zerbitzaburuak 2021eko urriaren 25ean beste txosten bat egin du, eta bertan ohartarazi du hirigintza-bateragarritasunaren txostenaren eskaera honako jarduera honetan oinarrituta egin zela: “Industriarako karga mineralak ekologikoki ekoizteko jarduera garatzeko industria-establezimendu bat ezartzea” (*“Implantación de un establecimiento industrial dedicada a la actividad de Producción ecológica de cargas minerales para la industria”*).

Udal arkitektoaren txosten horretan adierazten denez, ingurumen-baimen integratua eskatzeko aurkeztu den 21-A058 erreferentzia duen proiektua, “Ondoan S. Coop.” enpresak idatzia, honako hau dela: *“Proyecto técnico y estudio de impacto ambiental para la obtención de la autorización ambiental integrada y declaración de impacto ambiental para la actividad de tratamientos de subproductos de la industria del papel de la planta de Valogreene Paper BC, S.L. en Bergara”*.

Beste alde batetik, txosten horretan udal arkitektoak dioenez, 2021eko irailaren 23an EAEko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariaren iragarkian dio jendaurrean jartzen direla “Valogreene Paper BC, S.L.” enpresak aurkeztutako proiektu teknikoa eta ingurumenaren gaineko eraginaren

azterlana, Begarako udalerrian arriskutsuak ez diren hondakinak kudeatzeko jardueraren ingurumen-baimen integratua eskatzeko.

2021-11-02ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez –ikusi ondoren arkitekto buruak 2021-10-25ean emandako txostena eta kanpoko letradu aholkulariak 2021-10-29an emandako txostena (udal-letraduak egun berean berretsitakoa), eta jakin ondoren zein den ezarri nahi den jarduera “Valogreene Paper BC SL” enpresak izapidetutako espedientean (2021-09-23ko EHAA)–erabaki zen 2021-07-23ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez onartutako hirigintza-bateragarritasunari buruzko txostena baliorik gabe uztea, uste baitzen bateragarritasunari buruzko udal-txostena egiteko adierazitako jarduera ez datorrela bat ingurumen-baimen integratuaren espedientean aitortutako jarduerarekin, eta jarraian sustatzaileari eskatu zitzaion beste txosten-eskaera bat egin dezala, benetan egin nahi duen jardueraren arabera.

Dekretu berri hori Ingurumenaren Kalitateko zuzendariari jakinarazi zaio; hain zuzen ere, 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak 15. artikuluan agindutakoaren arabera, espedientean ingurumen-bateragarritasunari buruzko txostena egiaztatu beharrak dituen eraginetarako. Era berean, espedientean agertutako alegazio- edo errekurtsio-aurrekizuei ere jakinarazi zitzaion.

2021eko azaroaren 8an EAEko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren iragarkia, non horren bidez 15 lan-egunez luzatzen den Begarako udalerrian arriskutsuak ez diren hondakinak kudeatzeko jardueraren ingurumen-baimen integratua eskatzeko “Valogreene Paper BC, S.L.” enpresak aurkeztutako proiektu teknikoa eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterlana jendaurrean izateko epea (eta horrenbestez, Begarako Udalak urriaren 6ko udal-erregistro itearekin egindako luzapen-eskaerari erantzuna ematen dio).

Udal arkitekto zerbitzuburuak, Ingurumeneko udal-teknikariak eta gai honetarako kontratatutako kanpoko letradu aholkulariak egindako txostenekin (azkena, Hirigintzako Administrazio Orokorreko udal-teknikariak berretsia) bat etorritz, alkateak, 2021eko azaroaren 19ko Dekretuaren bidez, honako alegazioak –aipatutako alegazio-testuan garatuak– aurkeztea erabaki zuen:

*LEHENENGOA: Alkatetza honek 2021-11-02an emandako dekretuarekin bat etorritz – Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari jakinarazia 2021RTE00944313 sarrera-erregistroarekin–, ondorio guztietarako kontsideratu behar da ez dela existitzen udal honek egin beharreko hirigintza-bateragarritasunari buruzko nahitaezko txostenik, 2021-07-23ko Ebazpenaren bidez onartutakoa baliorik gabe geratu delako, eta orain arte ez dutelako eskatu benetan garatu nahi den jarduerari buruzko bateragarritasun-txosten berririk –nahiz eta Begarako Udalak, 2021eko azaroaren 2ko Alkatetza Dekretu baten bidez, enpresa sustatzaileari espresuki adierazi–; izan ere, ez datoz bat ingurumen-baimen integratuaren espedientean datorren jarduera eta 2021-07-23ko ebazpenaren jatorria izan zena. Ondorioz, eskabidearen espedientearen dokumentazioa ez da osoa, ez baitator bat 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoarekin, eta, horrenbestez, indarrean dagoen legeriaren arabera, bidezkoa da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak prozedura honi amaiera ematea eta jarduketak artxibatzea, 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuko 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz.*

*BIGARRENA: Larramendi industrialdeko H partzelan hondakin ez-arriskutsuen kudeaketari buruz ezarri nahi den jarduera ez da bateragarria indarrean dagoen*

*Begarako HAPOTik eta Larramendi Sektoreko Plan Partzialetik eratorritako hirigintza-zehaztapenekin –idatzi honetako gorputzean azaldutakotik ondorioztatzen den moduan–, eta horrenbestez espediente honek ezingo luke izan aldeko ebazpenik.*

*HIRUGARRENA: Aurreko bi puntuetan azaldutako alegazioek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak hasitako espedientea amaitzea eta artxibatzea eragin beharko luketen arren, hori eragotzi gabe ere, alegazio honen testuak argi eta garbi uzten du Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako eta 2020ko martxoaren 4ko Aginduko zehaztapenetatik eratorritako printzipioek hondakinak beren ekoizpen-puntutik gertuen dauden instalazioetan tratatzea bultzatzen dutela, eta badagoela aukera (lurretako paper-fabrika) hondakinen balorizazio-prozesua hondakinak sortutako instalazioetan bertan egiteko, eta horrela berez ekoizpen-instalazioetan dagoen arazoa ez litzateke beste toki batzuetara eramango; eta horrek ez luke justifikatuko izapidetzen ari den eskaera onartzerik.*

*LAUGARRENA: Zuhurtziaz eta kautelaz jardutearen printzipioak eta jendaurrean ikusgai jarritako proiektu teknikoaren kaudimenari buruzko berme teknikoaren gabeziak gomendatzen dute egin nahi den instalazioa ez baimentzea, hurbil dagoelako bizitegi-erakinetatik (123 m-ra baserri hurbilena) eta bizitegi-auzoetatik (440 m-ra Basalگو auzoa).*

*BOSGARRENA: Nolanahi ere, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izateko ere, HIRUGARREN Alegazioan zehaztutako alderdiak osatu edo zuzendu beharko lirateke espedientean, eta bereziki 815/2013 Errege Dekretuaren Isurketa Industrialen Erregelamendua aplikatu.*

Kontuan harturik, sustatzaileak (Greene Waste To Energy SL), 2021eko azaroaren 2ko Alkatetzaren Dekretu bidez hala eskatu zitzaion arren, ez duela aurkeztu garatu nahi duen jarduerarekin bat datorren hirigintza-bateragarritasunari buruzko txosten-eskaera berririk, alkateak eskatuta, udal arkitekto zerbitzuburuak hirigintza-bateragarritasunari buruzko txostena egin du, sustatzaileak garatu nahi duen jardueran oinarrituta.

Ondorioz, aipatutako txostenari jarriki, Alkateak 2022ko urtarrilaren 28ko Dekretuaren bidez erabaki zuen onartzea udal arkitekto zerbitzuburuaren txostena zeinak adierazten baitu, Larramendi Poligonoko H Partzelan egin nahi den erabilera/jarduera, hondakin ez-arriskutsuen kudeaketari buruzkoa, ez dela bateragarria aplikatu beharreko hirigintza-araudiarekin eta, beraz, hala jakinaraztea Tinko Ingeniaritza SLU enpresako jaunari, «Greene Waste To Energy SL» enpresaren ordezkarietan diharduenari, eta erabaki honen berri ematea, halaber, espedientean interesa dutenez gain, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariari, eta udal arkitekto zerbitzuburuaren txostena ere bidaltzea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 15. eta 12-1 b) artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, bateragarritasunari (kasu honetan, bateraezintasunari) buruzko nahitaezko txostena jasota gera dadin.

Kontuan izanik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordetzak idatzia aurkeztu duela 2022ko urtarrilaren 3ko sarrera-erregistroko datarekin, Valogreene Paper BC,

S.L. enpresak bideratu nahi duen proiektuari dagokion ingurumen-baimen bateratuaren eta ingurumen inpaktuaren azterketaren espedientearen barruan, eta bertan, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 17. artikuluan jasotakoari jarraiki, Bergarako Udalari eskatzen dio egin dezala, 30 eguneko epean, bere eskumenen barruan egokitzat jotzen dituen oharrak jasoko dituen txostena.

Udalak 2022-02-9ko idazkiaren bidez erantzun zion 2022-02-3ko ofizio horri eta bertan adierazi zuen beretzat gordetzen zuela ezarritako epe berrian egokitasun-txostena egiteko eskubidea, eta 2022-02-03ko ofizioak zalantzak sortarazten zizkiola jardueraren xedeari buruz, izan ere, jarduera "kare-materialaren ekoizpen" gisa identifikatzea idatzi bakarrean agertzen baita, alegia, 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 12 artikulua exijitzen duenari jarraiki, enpresak 2021-06-11n hirigintza-bateragarritasunari buruzko txostena eskatzeko Udalari egindako idazkian, eta, aitzitik, informazioa jendaurrean jartzeko (2021-9-23) eta informazio-epea luzatzeko erabakia jakinarazteko (2021-11-8) EHAAn argitaratutako iragarkiek, biek ala biek, "Bergaran hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko" jarduerari egiten diote erreferentzia, eta 2022-01-28an onartutako bateragarritasun-txostenak ere jarduera bera aipatzen du, horixe baita VALOGREENE PAPER BC SL enpresak abiatutako espedientearen behin eta berriz adierazten dena.

2022ko otsailaren 10ean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren erantzuna jaso zen eta bertan adierazten zen espedientearen jasota dagoela 2021eko uztailaren 23ko Dekretua, eta bertan adierazten dela VALOGREENE PAPER BC SLk sustatutako jarduera bat datorrela Bergarako plangintzarekin; eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzak espedientearen izapidetzen jarraitu duela, eta dokumentazioa jendaurrean jarri dela (EHAako 2021-09-23ko eta 2021-11-08ko iragarkiak). Eta horren ondoren honakoa esaten da, hitzez hitz:

*Izapide horretan, akats bat gertatu da, organo honek garrantzitsutzat jotzen ez duena; izan ere, nahiz eta iragarkiaren izenburuan adierazten den jarduera hondakin ez-arriskutsuen kudeaketa dela, herritarren esku jarri den dokumentaziotik ondorioztatzen da jarduera kareharria ekoiztekoa zela, eta, beraz, egoki irizitako alegazioak aurkeztu nahi dituzten pertsonen parte hartu nahi dutela (sic).*

Jarraian, berriz, adierazten da 2022ko urtarrilaren 28ko Dekretuaren bidez emandako hirigintza-bateragarritasunari buruzko txostena organo horrek izapidetzen duena ez den jarduera bati buruzkoa dela, eta, beraz, ez dituela izango 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 12. eta 15. artikuluetan aurreikusitako ondorioak.

Alkateak 2022ko otsailaren 17an emandako dekretu baten bidez erabaki zuen:

*1.- Berrestea Alkatetzaren 2022ko urtarrilaren 28ko Dekretua, zeinaren bidez erabaki baitzen berrestea udal arkitekto zerbitzuruaren txostena (kasu honetan bateraezintasun txostena), zeinak adierazten baitu, Larramendi Poligonoko H Partzelan egin nahi den erabilera/jarduera, hondakin ez-arriskutsuen kudeaketari buruzkoa, ez dela bateragarria aplikatu beharreko hirigintza-araudiarekin. Txosten hori bidali zitzaion Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariari, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 15.*



*eta 12-1 b) artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, bateragarritasunari buruzko nahitaezko txostena jasota gera dadin.*

*2.- Aurreko puntuan adierazitakoaz gain, 2021eko azaroaren 19ko Dekretuan zehaztutako alegazioak berrestea. Dekretu horretan, besteak beste, adierazten da Larramendi industrialdeko H partzelan ezarri nahi den hondakin ez-arriskutsuen kudeaketarako jarduera eta Administrazio horrek "kare-materialaren ekoizpen" moduan kalifikatzen duena, ez dela bateragarria indarrean dagoen Bergarako HAPOTik eta Larramendiko Sektoreko Plan Partzialetik eratorritako hirigintza-zehaztapenekin eta, beraz, ezingo litzatekeela espedientearen aldeko erabakirik hartu.*

*3.- Onartzea VALOGREENE PAPER BC S.L. enpresak IITa lortzeko eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko eskatutako proiektuari buruzko oharren erabaki hau eta baita Udaleko Ingurumen teknikariak eta kanpoko letradu aholkulariak sinatutako txostena ere, honekin batera igortzen dena, eta horri jarraiki, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordetzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariari eskatzea artxibatu dezala Valogreene Paper BC, S.L." enpresak Bergarako udalerrian arriskutsuak ez diren hondakinak kudeatzeko jarduerarako ingurumen-baimen integratua eskatzeko aurkeztutako proiektu teknikoa eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterlana.*

*4.- Oharren erabaki hau (Udaleko Ingurumen teknikariak eta kanpoko letradu aholkulariak sinatutako txostenarekin batera), Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariari helaraztea Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen 17. artikuluan ezarritakoen ondorioetarako.*

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordeak emandako ebazpenaren bidez (2022ko apirilaren 8ko udal erregistro sarrerarekin jakinarazia) ebatzi du ingurumen-inpaktuari buruzko aldeko adierazpena egitea eta ingurumen-baimen integratua ematea "Valogreene Paper BC, SL" enpresaren proiekturako Bergarako udalerrian kare-materiala ekoizteko instalaziorako.

Aipatutako ebazpenaren aurka hilabeteko epean gorako errekurtoa ezartzeko aukera eskaintzen da.

Bergarako Udaleko ingurumen teknikariak eta gai honetarako kontratatutako kanpoko letradu aholkulariak batera egin dute dagokion txostena.

Udaleko Ingurumen teknikariak eta gai honetarako kontratatutako kanpoko letradu aholkulariak batera sinatutako eta Hirigintzako Administrazio Orokorreko udal-teknikariak berretsitako txostenari jarraiki,

**ERABAKI DUT:**

**LEHENENGOA:** Gora jotzeko errekurtsua jartzea, ondoren jasotzen den moduan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Iraunkortasuneko sailburuordearen ebazpenaren aurka. Ebazpen horrek (2022ko apirilaren 8ko udaleko sarrera-erregistroaren bidez jakinarazia) ingurumen-inpaktuaren adierazpena egitea eta ingurumen-baimen integratua ematea ebatzi du, Valogreene Paper BC, SL enpresaren proiektuaren aldeko izaerarekin, Bergarako udalerrian kare-materiala ekoizteko:

### ALEGAZIOAK

**AURRETIKOA.-** Hasteko, adierazi behar da aurkeztutako alegazioen erantzuna ez dela aurkeztu diren alegazioen arabera artikulatu, baizik eta Eusko Jaurlaritzaren iritziz haietan lantzen diren "gaien" arabera, batzuk adibide gisa hartuta, baina beste batzuk erabat alde batera utzita, besteak beste, buru naizen Udalak aurkeztutakoa. Horrek esan nahi du bertan azaldutako galdera guztiei ez zaiela erantzun, eta, beraz, ondoren adieraziko dena gorabehera, tramite hartara jo behar dugu eta bertan alegatutako guztia erreproduzitzen jo behar dugu gorako errekurtsu honetan.

Kontua ez da ezin onartuzkoa izatea, zor zaion begirunez, egindako alegazioei "horrela" erantzutea, kontua da administrazio-jardunaren berri eman behar duten oinarrizko printzipioen aurka egiten duela erabaki horrek, eta defentsa-gabezia sortzen die la alegatzaileei, alegazioei ez zaielako behar bezala erantzun. Une honetatik bertatik adierazten da hori, dagozkion ondorioetarako.

Azalduko den bezala, badira Udal honek planteatutako zenbait gai erantzun ez direnak, besteak beste:

- Lurraldearen antolamenduari buruzko araudia eta sektoreko araudia betetzeari loturik alegatutakoari buruz, zehazki: 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoruko kutsatuei buruzkoa, hondakinen eta azpiproduktuen arteko bereizketa ezartzen duena; EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), hondakinen kudeaketari dagokionez; EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020; EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Planaren zirriborroa; eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko martxoaren 4ko Agindua.
- Egindako alegazioaren hirugarren puntuan alegatutako guztiari buruz (Izapidetzen ari den Proiektuari buruzko gogoetak ikuspegi teknikitik izenburupean), eta, zehazki, zuhurtziaren eta kautelazko ekintzaren printzipioaren aplikazioari buruz, berme teknikorik ezari buruz, jendaurrean ikusgai jarritako proiektu teknikoaren kaudimenari buruz, ingurumenaren eta giza osasunaren gaineko inpaktuei buruz hurbilen dauden bizilagunei dagokienez.

Alegazioei erantzunik ez emateak edo alegazioei planteatutako gaien erantzunik ez emateko moduan ekiteak aukera ematen du ingurumen-baimen integratuak jasotzen duen azpiegituraren errealitatea saihesteko eta kare-materiala ekoizteko instalaziotzat kalifikatzeko benetan **hondakinak kudeatzeko azpiegitura** dena, eta hori guztia, alde batera utzita udalaren eskumenak eta hirigintza-araudia,

hondakinen kudeaketari buruzko informazioa eman behar duten printzipio gidariak, eta are larriagoa dena, hondakinak kudeatzeko instalazio batek pertsonen osasunerako eta ingurumenerako izan ditzakeen arriskuen benetako azterketarik egin gabe.

Onartezina da, azalduko den moduan, hondakinak tratatzeko instalazio baten aurrean gaudela ukatzea eta baimen berean hondakinak tratatzeko baldintzak ezartzea (baldintzak, C.3 puntua).

**LEHENENGOA.- HIRIGINTZA-BATERAEZINTASUNARI BURUZKO TXOSTENA IZATEA. EBAZPENA ERABAT DEUSEZA IZATEA**

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testuategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren **15. artikulua** hau xedatzen du:

*“Interesatuak aurrez eskaera eginda, instalazioa kokatuta dagoen udalerriko udalak 12.1.b) artikuluan aipatzen den txostena bidali beharko du gehienez ere hogeita hamar eguneko epean. Hala egin ezean, txosten horren ordez beraren eskaeraren kopia aurkeztuko da.*

*Edonola ere, **artikulu honetan araututako hirigintza-txostena ezezkoa bada –eta noiznahi egiten dela ere, ingurumen-baimen integratua eman aurretik jositzen bada autonomia-erkidegoan–, ingurumen-baimen integratua emateko organo eskudunak prozedura amaitzeko ebazpen arrazoitua emango du eta jarduketak artxibatu egingo ditu.**”*

Errekurritutako ebazpenak egitatezko aurrekarietan (lehen orria, azken-aurreko paragrafoa, eta lehen orri honen atzealdea, lehenengo paragrafoa) dio Udalak ezarri beharreko jardueraren hirigintza-**bateraezintasunari buruzko txostena** egin duela eta txosten hori Eusko Jaurlaritzari helarazi zaiola.

Zehazki, honako hau adierazten du:

*“En su escrito de fecha **1 de febrero de 2022 el Ayuntamiento de Bergara trasladó a este órgano Decreto de Alcaldía de 28 de enero de 2022 por el que se aprueba el informe de la arquitecta municipal jefa del servicio que pone de manifiesto la no compatibilidad del uso/ actividad que se pretende en la parcela H del Polígono Larramendi, referente a la gestión de residuos no peligrosos, de acuerdo con la normativa urbanística aplicable.**”*

Eta, Eusko Jaurlaritzako Sailburuordetzak jarduerari buruzko txosten bat egiteko egindako eskaera aipatu ondoren, jarraitzen du:

*“Con fecha de 17 de febrero de 2022 **el Ayuntamiento de Bergara remite escrito a este Órgano ratificando su pronunciamiento de 28 de enero.**”*

Horiek horrela, hara non, **alegazioei erantzutean** eta bateraezintasun-txostenaren gaia aztertzean (Ekologistak Martxan elkartearen bigarren alegazioari emandako erantzunean), ez da egia esan eta **berariaz adierazi da ez dela bateraezintasun-txostenik egin:**

*“En este sentido, forma parte de la solicitud de autorización realizada ante este órgano el 4 de agosto de 2021, certificado emitido por el Ayuntamiento de Bergara con fecha 23 de julio de 2021, de forma que la actividad contemplada en el proyecto presentado para la autorización ambiental integrada y la actividad objeto del citado certificado son la misma, aunque tengan una denominación distinta puesto que en la primera se denomina actividad de tratamiento de subproductos de la industria del papel y en la segunda se denomina producción ecológica de cargas minerales para la industria.*

*Posteriormente, se ha procedido por el Ayuntamiento de Bergara a la aprobación de un Decreto que suspende el mencionado informe, de forma que al día de la fecha **no consta en el procedimiento un informe urbanístico negativo** respecto a la actividad que se pretende implantar que, conforme a lo contemplado en el artículo 15 del Texto Refundido de la Ley de prevención y control integrados de la contaminación **conllevaría el fin del procedimiento y el archivo de las actuaciones.**”*

Adierazpen hori **faltsua da**; izan ere, **2022ko otsailaren 1etik dago espedientean bateragarritasunari buruzko ezezko txostena, 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikulua arabera prozedura amaitzea eta jarduketak artxibatzea eragin behar zuena.**

Ingurumen-baimen integratua ezeztatu egin behar da, aztertzen ari garen ebazpenean administrazio baimentzaileak berak egindako adierazpenak ikusita, eta, hori guztia, zuzenbidearen aurka jardun izanaren “zigorraren azpian”, 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikulua urratzeagatik.

**Ezin dira egitateak alde batera utzi legeak ezarritakoaren kontra ebazteko.**

Horiek horrela, gorako errekurtsioa jarri zaion ebazpena, ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena egin ondoren ingurumen-baimen integratua ematen duena, **erabat deuseza da, 39/2015 Legearen 47.1.f)** artikuluan ezarritakoaren arabera, ordenamendu juridikoaren aurkako egintza espresa delako, eta horren bidez **ahalmenak edo eskubideak eskuratzen direlako horretarako beharrezko baldintzak betetzen ez direnean.**

Aipatu berri den lege-urratzearen larritasuna ikusita, eta 39/2015 Legearen 117. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, errekurritu den **ebazpenaren betearazpena eteteko eskatzen da**, kontuan hartuta, lehenik eta behin, inpugnatzeko arrazoi hau aipatutako 39/2015 Legearen 47.1. artikulua “f” atalean oinarritzen dela, lege-testu bereko 117.2.”b” artikulua eskatzen duen bezala, eta bigarrenik, interes orokorrari eragin dakizkiokeen kalteak kontuan hartuta, bai udalaren hirigintza-antolamendua



arriskuan jartzeagatik, bai ingurumena eta, ondorioz, pertsonen osasuna arriskuan jartzeagatik (117.2 artikulua).

**BIGARRENA.- HONDAKINAK TRATATZEKO PLANTA BAT EZARRI NAHI DA, HIRIGINTZA-ARAUDIAREKIN BATERAEZINA DENA, KARGA MINERALEN EKOIZPEN EKOLOGIKOA IZENAREKIN. ERABATEKO DEUSEZTASUNA.**

Mintzagai dugun ingurumen-baimen integratuaren eskaera Valogreene Paper BC, S.L. enpresak eskatu zuen, baina, aldez aurretik, eta horretarako, 2021eko ekainean (2021-00004600 sarrera-erregistroa), jaunak eskatu zuen, horretarako ezinbesteko baldintza delako, "*hirigintza-bateragarritasunari buruzko txostena, Bergarako (Gipuzkoa) Larramendi poligonoko H lursailean **karga mineralen ekoizpen ekologikoa jarduerarako** industria-establezimendu bat ezartzeari dagokionez*".

Teknikari eskudunak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen batera mugatzen da eskaera, eta **ez da inolako dokumenturik erantsi**.

Udal Arkitektoak eskatutako txostena eman zuen 2021eko uztailaren 7an, eta bertan adierazi zuen eskaeran aurreikusitako erabilera bat zetorrela industria-erabilerarekin, eta aldekoa zela. Hala ere, hauxe ohartarazi zuen: "*Hirigintza-kontsulta honen irismena lurzuaren erabilera ingurumen-baimen integratuaren xede den jarduerarekin bateragarria den ala ez ezartzera mugatzen da, **industriarako karga mineralen ekoizpen ekologikorako planta** batekin alegia*", eta adierazi zuen: "*Ez dira aztertu beste hirigintza- zein ingurumen-zehaztapenak*".

Horrenbestez, Alkatetzaren 2021-07-23ko Dekretuaren bidez, erabaki zen txostena onartzea, bideratzea eta "*eskatzaileri hirigintza-bateragarritasunaren ziurtagiria*" igortzea (2314 irteera-erregistroa).

Baina hara non, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren iragarkia argitaratu zen 2021eko irailaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira Valogreene Paper BC, S.L. enpresak aurkeztutako proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa, Bergarako udalerrian **hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko jarduerarako** ingurumen-baimen integratua eskatzeko.

Engainua agerikoa da. Ez da akatsa, Eusko Jaurlaritzak alegazioei emandako "erantzunean" sinetsarazi nahi duen bezala.

Errespetu osoz, jendaurrean jarri beharreko jarduera kalifikatzerakoan akats bat izan dela eta ez dela hondakinen kudeaketa esateak ez du oinarririk, gure alegazio-idazkian azaldutako arrazoi guztiengatik ez ezik, haietara jotzen baitugu espresuki, **errekurritu den ebazpena bera ikusita, C.3 atalean "hondakinak tratatzeko baldintzak"** ezartzen baitu.

Izan ere, jendaurrean jarritako dokumentazioan bertan hondakinen planta dela, LER kodeak, etab. adierazteaz gain, ebazpenean bertan ere aitortzen du, eta gero ukatu egiten du alegazioei erantzutean.

Gogora dezagun, adibidez, jendaurrean jarritako dokumentazioaren artean honako hau zegoela: “Valogreene Paper BC, SL enpresak Bergaran duen plantan **papergintzako azpiproduktuak tratatzeko jarduerarako** ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena lortzeko proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterlana” (erreferentzia: 21.A058, Ondoan S.COOP).

Jardueraren definizioa ez da kontu hutsala, baizik eta zuzenean eragiten du jardueraren hirigintza-kalifikazioan, eta, beraz, haren bateragarritasunean industria-jarduera bat baldin bada, edo haren bateraezintasunean hondakinak kudeatzeko planta bat baldin bada. Horregatik, Alkatetzaren 2021eko azaroaren 2ko Dekretuaren bidez eta jendaurrean jarritako dokumentazioa ikusita, indarrrik gabe utzi zen hirigintza-bateragarritasunari buruz egindako txostena, kontuan hartuta aipatutako txosten hori egiteko aintzat hartutako jarduera ez datorrela bat ingurumen-baimen integratuak gai duen proiektuan jasotako jarduerarekin.

Argi dago hondakinak kudeatzeko jarduera dela eta ez dela bateragarria udal-antolamenduarekin, eta, horregatik, egindako aldeko txostena bertan behera utzi ondoren, aurkako txostena egin zen.

Hirigintzaren ikuspegitik, Larramendi eremuko HAPO eta PP, kudeaketa-jarduera hori “zerbitzu-azpiegitura” gisa kalifikatu behar da, edo, betiere, “erabilera osagarri” gisa.

Egindako alegazioetan adierazi dugun bezala, indarrean dagoen HAPOk (2009-07-27ko GAO) bere ordenantzen 15. artikuluan jasotzen du **jarduera ekonomikoetarako (J) eta industria-erabileretarako (J-1) lurzorua**ren erabilera-erregimena, eta **ez ditu horien artean sartzen industria-jardueraren hondakin ez-arriskutsuak** (hala nola, oregintzako-papergintzako hondakinak) **kudeatzeko azpiegiturak**.

Bestalde, **Larramendi Sektoreko Plan Partzialak** bere hirigintza arauen 6. artikuluan jaso du H lursailaren fitxa partikularra, eta hartan **ere ez da aurreikusi zerbitzu-azpiegituren erabilera**.

Jarduera nagusi bat **jarduera osagarri gisa erabiltzeko aukera** aztertzen badugu, arazoa da ez dagoela jarduera hori autonomo gisa ezartzeko aukerarik. Onargarria litzateke jarduera batek bere ekoizpen-hondakinen tratamendua eskatzea, baina **ezin da erabilera hori modu independentean ezarri**.

Baina, gainera, lursailaren barruan **ur-araztegi** bat barne hartzen duen instalazio bat proiektatzen du aurkeztutako proiektuak, eta erabilera hori **ez dago erabilera osagarri gisa sartua Plan Partzialaren 6. artikuluan; beraz, bideraezina da**.



Beraz, eta aurkeztutako alegazioak kontuan hartuta, esan behar da, hirigintzaren aldetik, hondakinak kudeatzeko erabilera ez dela bateragarria indarrean dagoen antolamenduarekin, ez zerbitzu-azpiegitura gisa, ez erabilera osagarri gisa; aitzitik, erabilera garatzerakoan eta proiektuarekin bat etorriz, egin beharreko jarduerak urak arazteko estazio bat planteatzen du, eta hori ez dago baimenduta.

Indarrean dagoen hirigintza-araudia eta ezarri nahi den jardueraren errealitatea ikusita, **ezinezkoa da hirigintza-bateragarritasunari buruz aldeko txostena egitea.**

Arauan jasotako bateragarritasun-txostena aurkeztu beharraren birtualtasuna da **ingurumen-baimenak emateko prozeduretan hirigintza-arloan eta lurralde-antolamenduaren arloan toki-erakundeek duten eskumena bermatzea**, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2011ko otsailaren 1eko 80/2011 Epaian (JUR 2011\313448) ezarri duen bezala, eta Auzitegi Gorenak berretsia, esate baterako, ekainaren 27ko 2869/2014 Epaian (RJ 2014\3781), udal-txostena loteslea den ala ez (16/2002 Legeari erreferentzia eginez, gaur egun 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua izango litzatekeena), eta ingurumen-baimen integratu bat ematea eragotzi dezakeen ebaztean, hauxe adieraziz:

*“El informe previsto en el artículo 15 de la Ley 16/2002 tiene carácter vinculante si resulta negativo o desfavorable”, eta “En dicho ámbito la Administración autonómica no tiene opción y no puede decidir la continuación del procedimiento administrativo. Fuera de dicho ámbito, en cambio, el informe carece de los efectos obstativos apuntados – cabe añadir, incluso en extremos atinentes a otros ámbitos de competencia municipal – (FJ 5º)”.*

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzak ezin du ingurumen-baimen integratuaren eskatzaileak nahi duena onartu eta ezin du **lege-iruzur** nabarmena bermatu, ontzat ematean –Auzitegi Gorenaren hitzetan (2001-12-19ko epaia, RJ 2002, 6342)– *arau baten babesean egindako egintzak, antolamendu juridikoak debekatutako emaitza xede dutenak, edo haren aurka daudenak* (“actos realizados al amparo de una norma que persigan un resultado prohibido por la ordenación jurídica, o contrario a él.”).

**Bateragarritasun-txostena eskatzen da** ingurumen-baimen integratuaren espedienteari ekarpena egiteko, eta, kasu honetan, **txostena eskatu den jarduera ez dator bat** ingurumen-agintaritzari eskatu zaionarekin, eta, horrenbestez, **lege-iruzur nabarmena** dago, eta, horrek **botere-desbideratzea** dakar, arauak lortu nahi duen helburutik aldendu egiten baita Eusko Jaurlaritza, hauxe da, ezarri nahi den erabilera hirigintza-araudiak baimentzen duela egiaztatzea.

Egiaz ezarri nahi dena hondakinak tratatzeko planta dela egiaztatuta, eta kontuan hartuta hirigintza aldetik horrelako instalaziorik ezin dela ezarri lursail horretan, Bergarako Udala behartuta zegoen –engainatua izatean– dekretatu zuen bateragarritasuna indarrrik gabe utzi ondoren hirigintza-bateragarritasunari buruzko kontrako txostena egitera, jendaurrean jarritako dokumentazioa ikusita. Kontrako txosten hori bi aldiz jakinarazi zitzaion Eusko Jaurlaritzari, 2022ko otsailaren 1ean eta 2022ko otsailaren 17an, Sailburuordeak eskatu ondoren, zein jardueraren aurkako txostena egin zen argitzeko.

Gauzak direnak dira, edozein modutan deituta ere.

Jardueran hondakinak tratatzen direla ukatzea, beren egintzek kontrakoa adierazten dutenean (Ingurumen-baimen integratuaren C.3 baldintza), eta alde batera uztea, egindako alegazioetan Eusko Jaurlaritzari azaldu zizaion bezala (haietara jotzen baitugu), kasu horretan hirigintzaren aldetik erabilera ez litzatekeela bateragarria izango HAPOn eta Larramendi Sektoreko PPren arabera, berriz ere ondorioztatzen da **erabat deuseza dela** ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena egin ondoren ingurumen-baimen integrala ematen duen ebazpena, 39/2015 Legearen 47.1.f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz; izan ere, ordenamendu juridikoaren aurkako egintza espresa da, eta, haren bidez, **ahalmenak edo eskubideak eskuratzen dira horretarako beharrezko baldintzak betetzen ez direnean.**

#### **HIRUGARRENA.- TXOSTEN JURIDIKOA FALTA DA**

Izapidetutako IBB espedientean **ez da txosten juridikorik egin,** eta Udalak eskatu duenean, Eusko Jaurlaritzak adierazi du ez dagoela halakorik, aplikatzekoa den araudian aurreikusita ez dagoelako, baina ahaztu egin du Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 79. artikulua honako hau ezartzen duela:

*“Prozedura ebazteko, lege-xedapenen arabera nahitaezko diren txostenak **eskatuko dira,** eta **ebazteko beharrezko iritzitakoak,** nahitaezkozkat zer manuk jotzen dituen adieraziz edo, eskatu behar badira, eskatzea zergatik komeni den arrazoituz.”*

Jendaurrean jartzeko fasean, **izaera juridiko ukaezina** duten gaiak alegatu dira, hala nola, ezarri nahi den erabilera ez dela bateragarria Udalean adierazitakoarekin, lege-iruzurra egin dela eta abar, eta horrek espedientea ebazteko txosten juridikoa eskatzera behartzen du.

Kasu honetan, txosten juridikorik ez izateak, berriz ere, ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena egin ondoren IBB emateko ebazpena **erabat deuseza izatea** dakar 39/2015 Legearen 47.1.e) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, espedientea izapidetzean **funtsezko izapide bat ez betetzeagatik,** edo, subsidiarioki, **deuseztagarria** izatea, lege-testu beraren 48. artikulua urratzeagatik.

#### **LAUGARRENA.- UDAL HONEK ALEGATUTAKOIA LURRALDEA ANTOLATZEKO ARAUDIA ETA SEKTOREKO ARAUDIA EZ BETETZEARI BURUZ**

Errekurritu den ebazpenak **ez dio erantzunik ematen kontu horri,** saihestu egiten du, eta, beraz, gure alegazioetan adierazitakora jo behar dugu berariaz. Hona hemen laburbilduta:



Hala, ikusirik 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, hondakinen eta azpiproduktuen arteko bereizketa ezartzen duena; EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), hondakinen kudeaketari dagokionez adierazten dutena; EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020; EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Planaren zirriborroa; eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko martxoaren 4ko Agindua, ondorioztatu behar da bi instalazio-mota planteatzen direla paperaren fabrikazioan "tinta-gabetze" lohien hondakinak tratatzeko (LER 030305 kodea) uren arazketako lohiak tratatzeko (LER 030311 kodea) eta paper-hondakinaren errefusa (LER 03030307 kodea) tratatzeko.

Hau da:

- Batera balorizatzeko aukera hondakinak kudeatzeko azpiegitura batean ad hoc prozesu batean.
- Enpresetan bertan beharrezko instalazioak jartzeko aukera. Aukera hau hautatu du, gure alegazioetan adierazi genuen bezala, Smurfit Kappa Nervión SAK, eta erabilera nagusiaren instalazio osagarriak planteatu ditu "industria-planta" berean.

Ez gaude, noski, berak sortutako hondakinak tratatzeko behar diren instalazioak egingo dituen industria baten aurrean, eta, beraz, ondorioztatu behar da hondakinak kudeatzeko azpiegitura bat ezarri behar dela, hainbat industriaren beharrei batera erantzungo diona "ad-hoc" prozesu batean batera balorizatzeko, edo, bestela esanda, hondakinak kudeatzeko azpiegitura bat.

Azpiegitura-mota horiek bereizi egiten dira hondakinen kudeaketaren printzipio gidarieratik eta LAGetatik, erantzun gabeko alegazioetan azaltzen zen bezala; izan ere, berriro diogu, haietara joko dugu berariaz, adierazten baita paper-fabriketan sortutako hondakinen tratamendua ekoizpen-instalazioan bertan egin beharko litzatekeela.

Gure alegazioetan adierazi eta azaldu dugun moduan, guztiz argigarria da aipatu dugun Smurfit Kappa Nervión SLren adibidea Iurretan, industrian bertan konpontzen baitu sortutako hondakinen arazoa, eta saihestu egiten baitu hondakin horiek beste leku batera eramatea eta ingurumen-arazoak eragitea halakorik ez duten lekuetan.

Hondakinak sortzen diren fabrika-instalazioetan bertan balorizatzea koherenteagoa da, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko martxoaren 4ko Aginduan (aipatu berri dugun Iurretako instalazioari buruzkoa) ezarritako aldi baterako neurrietara egokitzen da.

Gorako errekurtoa jarri zaion ebazpenak ingurumen-baimen integratua ematen dio **hondakinen kudeaketaren printzipio gidarien "aurka" doan** hondakinak tratatzeko instalazio bati, **eta Bergarako udalerrira eramaten ditu beste leku batzuetan sortzen diren ingurumen-arazoak; horregatik, baliogabetu egin behar da.**

**BOSGARRENA.- IZAPIDETZEN ARI DEN PROIEKTUARI BURUZ, ALEGAZIOEN HIRUGARREN PUNTUAN IKUSPEGI TEKNIKOTIK BESTE KONTSIDERAZIO BATZUK PLANTEATU ZIREN ETA BATZUK EZ DIRA ERANTZUN**

Alegazioetan azaltzen zenez, hirigintza-kontsiderazioez gain, ingurumen-organoak kontuan hartu beharko ditu ingurumen-arloko kontsiderazio orokorrak, eta horrela ondorioztatzen da ingurumen-baimen bateratua edo ingurumen -inpaktuaren aldeko adierazpena behar diren bermeekin emateko bete beharreko baldintzak ez direla betetzen.

Orokorrean azaltzen zenez:

- **Zuhurtziaz eta kautelaz jardutearen printzipioa** ezarrita –ingurumen-arloko Europako politika guztien printzipio informatzaileetako bat baita–, eta informazio publikoan dagoen proiektuan gaur egun hautemandako zalantzak ikusita, badaude aurreikusi gabeko beste eragin batzuk, egun eskura ditugun datuekin kuantifikatzeko oso zailak direnak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak ezartzen du, ingurumen-ebaluazioko prozeduretan bete beharreko printzipioen artean, zuhurtziaz eta kautelaz jardungo dela. Europako Batzordeak berak Komunikazio bat argitaratu zuen zuhurtzia-printzipioaz baliatzeari buruz (COM (2000) 1 Final), non honako hau zioen: *“cuando la evaluación científica preliminar objetiva indica que hay motivos razonables para temer que los efectos potencialmente peligrosos para el medio ambiente y la salud humana, animal o vegetal puedan ser incompatibles con el alto nivel de protección elegido para la Comunidad”.*

Zuhurtzia-printzipioaz baliatzeak, orduan azaldutako moduan, honako hau suposatzen du:

- Fenomeno, produktu edo prozesu batek izan ditzakeen ondorio arriskutsuak identifikatzea;
- Arriskuen ebaluazio zientifikoak, **baldin eta arriskua behar bezain zorroztz zehaztu ezin bada –behar adina datu ez dagoelako edo datuok erabakigarriak edo zehatzak ez direlako–.**
- **Beste guztiarekin batera, jendaurrean jarritako proiektu teknikoan horren kaudimenari buruzko berme teknikoan gabezia ere badago;** izan ere, proiektuak hainbat zalantza, datu kontrajarri eta argitu beharreko alderdi dituenek, ez dago esaterik ingurumeneko baimen bateratua emateko (eman zaion moduan) behar adina berme tekniko duenik.

Ondoren errepikatu egingo dugu alegazioan azaldu genuena jendaurrean jarritako proiektu teknikoaren azterketa teknikoan hautemandako zalantza, datu kontrajarri eta antzekoei buruz, eta bide batez esan

behar dugu alderdi horiei ez zaiela inolako kasurik egin gorako errekursoaren xede den ebazpenean, non erantzun generikoak eman diren, adibidetzat beste alegazio batzuk hartuz, udalak emandako datu tekniko eta zientifiko guztiak konfrontatu gabe.

- **Ingurumenaren eta gizakien osasunaren gaineko eraginak daude, gertuen bizi diren auzotarrek onartu ezinekoak;** horietako batzuk **ez dira behar adinako zehaztasunez ebaluatu edo, zuzenean, ez dira kontuan izan** proiektu teknikoarekin batera doan ingurumen-inpaktuaren azterketan, eta horretan bertan oinarritu da Ingurumen Baimen Bateratua eman izana (gorako errekursoaren xedea dena, alegia).

Gure alegazioan azaldu zen moduan, inpaktu akustikoaren ondoriozko eraginen neurria, usainen ondoriozko eragozpenak eta atmosferarako isurien ondorioak, besteak beste, ez dira kuantifikatu eta baloratu gertueneko auzotarren babesa bermatzeko adinako zehaztasunarekin. Eraikinak eta bizitegi-auzoak gertu daudenez (125 metrora baserri bat eta 440 metrora Basalgo auzoa) eta proiektuak ezaugarri bereziak dituzenez (instalazio gehienak aire zabalean egongo lirateke eta bereziki kutsatzailea eta gogaikarria den jarduera da), ezin da ziurtatu ustiapen-fasean instalazio berriaren inguruko eremuetan proiektuaren ondoriozko inpaktu batzuk ez direnik iritsiko maila kritikora.

Ez dezagun ahaztu Ingurumen Baimen Bateratua kare-materiala ekoizteko ematen dela, baina horren atzean benetan hondakinak tratatzeko instalazio bat dagoela. Partzelak berak duen egoeratik eta gertuan bizitegi-guneak izateagatik, horregatik debekatzen du hirigintza-araudiak ezarri nahi den jarduera ezartzea.

Are gehiago, errekurritzen den ebazpenean ezarritako baldintzen azterketa xeheak adierazten du gai orokorrak direla, baimen honetarako eta beste edozeinetarako ere balio dutela, eta, beraz, ez dela aintzat hartu jarraian azalduko den ezer.

Horrenbestez, alegazioan azaldu zen bezala:

**1. Proiektuari buruz argitu edo kontuan hartu beharreko alderdiak, eta kontuan hartu ez direnak ez alegazioen erantzunean, ez Ingurumen Baimen Bateratua ematerakoan.**

Alegazioetan, epigrafe honetan azaldu ziren Valogreene enpresak aurkeztu eta jendaurrean jarri diren agiri teknikoen azterketa teknikoaren ondoriozko zalantza eta gogoeta nagusiak.

Argitu gabeko alderdi eta zalantza hauek oinarri nahikoa da Ingurumen Baimen Bateratua baliogabetzeko (errebokatzeko).

Argitu gabeko alderdiak honako hauek dira:

- **Definitu instalazioan garatuko litzatekeen jarduera zehatza;** izan ere:
  - Aurkeztutako proiektuan paperaren azpiproduktuen tratamendua adierazten da; Eusko Jaurlaritzak jendaurreko informazio-aldian jarritakoa hondakin ez arriskutsuak tratatzeko instalazioa da.

- Proiektu teknikoaren lege-esparruaren atalean adierazten da jarduera honetan papergintzatik datozen azpiproduktuak (lohiak eta hondakin-paperaren errefusak) tratatuko direla; eta hondakinen alorrean indarrean dagoen legediaren arabera, horrekin adierazten du jarduera honetan ez dela hondakinik tratatuko; eta horrek kontraesana sortzen du, berez, prozesuetako lehengaien sarrera-korrante guztientzat EHZ kodea esleitzearekin (paperen arazketaren lohiak, tinta-kentzeen lohiak eta hondakin-paperen errefusa); eta horretaz gain, beste hondakin-korrante batzuk onartzeko aukera aurreikusten da (plastikoak, biomasa) hondakin-paperaren errefusarekin batera tratamendu termikoa egiteko.
- Indarrean dagoen legedian egiten den hondakinen definizioa eta Europako Justizia Auzitegiaren duela gutxiko jurisprudenzian ezarritako gidalerro gehigarriak oinarri hartuta, eta balorazio juridikoetan sartu gabe, ikuspegi teknikitik uste dugu Bergarako instalazioetan erabiliko liratekeen lehengaiak hondakinak direla eta ez azpiproduktuak, eta, beraz, instalazioaren jarduera papergintzako hondakinen tratamendua litzateke.

○ **Industriako isurketen erregelamendua onartzen duen 815/2013 Errege Dekretuaren aplikagarritasuna**

Ingurumeneko udal teknikariak emandako txostenean adierazten den bezala, proiektuan 815/2013 EDren ez aplikatzea justifikatzen da horren 26.2 artikuluan oinarrituta, hau baitio: *“exoneran a las instalaciones de gasificación o pirólisis si los gases resultantes de este tratamiento térmico son purificados en tal medida que dejen de ser residuos antes de su incineración, y que puedan causar emisiones no superiores a las resultantes de la quema de gas natural”*.

*A estos efectos estas instalaciones realizarán las mediciones correspondientes que así lo demuestren y lo pondrán en conocimiento del órgano competente de la comunidad autónoma.”*

Beste alde batetik, errekurritutako Ebazpenean, C.3.4 atalean, honako hau ezarri da: *“la referencia al gas generado en el proceso de pirólisis su condición de producto se acreditará a través del cumplimiento de las condiciones de emisión recogidas en la presente autorización. Para el aseguramiento de las mismas, complementariamente a los controles de emisiones realizará un control de la calidad del gas generado con una frecuencia mínima de 3 meses, analizando al menos el poder calorífico y el contenido de partículas, azufre, cloro y metales”*.

Halaber, adierazitako Alegazioen Eranskinean, 3. alegazioaren erantzunean (*“3ª Alegación: Estudio de alternativas y consideración de incineración”*), ingurumen-organoak honako hau adierazten du: *“la aplicación de la Directiva de Emisiones Industriales, que establece que el tratamiento del gas generado y las condiciones de emisión de la combustión final como variables condicionantes, lleva a concluir que a la planta proyectada en la que se prevé depurar el gas generado y en la que se contemplan emisiones, en cumplimiento del apartado 6 del dictamen, no superiores a las resultantes de la quema de gas natural, no*



le resulta de aplicación el Capítulo IV de la Directiva, referido a la incineración ni, en consecuencia, el epígrafe 5.2. el Anexo del RD 815/2013.”

Erantzun horrek Europako Batzordearen honako irizpen honetara bidaltzen gaitu: “Gasification of waste under Directive 2010/75/EU on industrial emissions (IED)”, non argitzen den gasifikazioak zein kasutan gelditu behar diren errausketaren irismen-eremutik kanpo.

Horrenbestez, teknikariak azaltzen duen moduan, gasifikazioa errausketaren aplikazio-eremutik kanpo gelditzen ote den zehaztu ahal izateko irizpen horrek gakotzat hartzen dituen bi alderdiei jarraituz:

1. Nola egiaztatu ondoriozko gasaren errekontzarekin lotutako isuriak ez direla gas naturala erretzearekin lotutakoak baino handiagoak.
2. Sortutako gasa hondakin-izaera galtzeko bezain araztua izan den edo ez.

Lehenengo puntuari dagokionez, Irizpenak dio gas naturalaren errekontzaren ondoriozko isuriak honako hauek arautzen dituztela:

- Teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko konklusioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren errekontza-instalazio handietarako 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera, eta industria-isurketei buruzko 2010/75/EU Zuzentarauaren 3. kapituluaren eta V. eranskinaren arabera (guztira 50 MW edo gehiagoko potentzia termiko nominala duten instalazioetarako).
- 2015/2193 Zuzentaraua, errekontza-instalazio ertainetatik datozen zenbait agente kutsatzaile atmosferara isurtzea mugatzeari buruzkoa. Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikora ekarri zen abenduaren 22ko 1042/2017 Errege Dekretuaren bidez (Errekontza-instalazio ertainetatik datozen zenbait agente kutsatzaile atmosferara isurtzea mugatzeari buruzkoa) eta, beraz, eguneratu egin da 34/2007 Legearen IV. eranskina (34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa).

Irizpenak ezartzen duenez, legegintza-egintzetan sartutako kutsatzaileen kasuan, arau-eskakizunen betetzeak ziurtatu egin behar luke kutsatzaile nagusien emisioak ez dituela gainditzen gas naturalaren errekontzaren ondoriozko emisioak. Ildo horretatik, gas naturala erretzeko instalazioetarako erreferentziatzko araudian, isurtzeko muga-balioa kutsatzaile bakar batentzat ezartzen da, NOx-entzat alegia. Zehazkiago, II. eranskineko 2. zatiko 1. koadroan. Errekontza-instalazio ertain berrietarako isurtzeko muga-balioei buruz, honako muga hauek ezartzen dira:

*Isurtzeko muga-balioak (mg/Nm<sup>3</sup>), errekontza-instalazio ertain berrietarako (gas turbinak edo motorrak ez direnak)*

Kutsatzailea	Gas naturala
SO <sub>2</sub>	–
NO <sub>x</sub>	100
Partikulak	–

Hala ere, proiektu teknikoak pyrogasa arazteko sistema bat aurreikusten du erre aurretik. Araztutako pyrogasaren errekuntzaren ondorioz proiektuan aitortutako gas-isurketen balioak hauek dira: < 30 mg/nM<sup>3</sup> Sox, < 6 mg/Nm<sup>3</sup> HCL eta < 5 mg/Nm<sup>3</sup> partikula.

Bestalde, 2022ko apirilaren 8ko Ebazpenean ingurumen-organoak ezartzen du pirolisi-prozesuan sortutako gasaren kalitatearen aldizkako kontrolak egin behar direla gutxienez 3 hilabeteko maiztasunarekin, eta, halaber, analisi-parametro hauek ezartzen ditu:

- Berotze-ahalmena
- Partikulen, sulfrearen, kloroaren eta metalen edukia

Teknikariak adierazi duen moduan, azaldutako guttia kontuan hartuta, honako hau ondorioztatzen da: gasifikazio-prozesua errausketaren irismen-eremutik kanpo geratzen ote den zehaztu ahal izateko aztertutako irizpenean ezarritako baldintzetatik lehena ez dela betetzen; izan ere:

- Zuzentarauan adierazitako erreferentziazko araudiak NO<sub>x</sub>-entzat soilik ezartzen du isurtzeko muga-balio bat, eta ez, ordea, araztutako gasaren errekuntzaren ondoriozko isurketetan proiektuan aitortzen diren beste kutsatzaile batzuentzat. Ildo horretatik, gas naturalak ez du partikularik, konposatu kloraturik, lurrunkorrik edo metalik, eta SO<sub>2</sub>-ren aztarnak izan ditzake.
- Ingurumen-organoak ezartzen du sortutako gasaren kalitatea kontrolatu beharra dagoela, eta hori kontraesanen dator Ebazpenean egindako aurreikuspenarekin, sortutako gasa erretzea gas naturala erretzearen parekoa izango dela dioenean; izan ere, gas naturala erretzean egongo ez liratekeen parametroak aztertu beharra dago (partikulak, sulfrea, kloroa eta metalak). Kalitate-kontrol hori, gainera, izapide hutsa da; izan ere, ingurumen-organoak ez du muga-baliorik ezartzen aztertu beharreko parametroetarako, eta ez du ere ezartzen zer neurri hartu behar diren sortutako gasean kutsatzaile horietakoren bat egonez gero.

Horrenbestez, nekez demostratu daiteke 26.2 artikuluko horretan aipatutako salbuespena aplikatu daitekeenik; dena den, ustiapen-fasean egindako neurketen emaitzen arabera egongo litzateke alderdi hori.

Zuhurtziaren printzipioa aplikatuz gero, gure ustez 815/2013 ED aplikatu beharko litzateke hondakin-paperaren errefusa tratatzeko linea osoan, Valogreenek aurreikusitako instalaziorako finkatutako baldintzak haren pareko instalazioak dituztenen ildoan egon daitezen.

- **Aurretiazko esperientzia arrakastatsurik ez izatea proposatutako teknologien kaudimen teknikoak ziurtatzeko:**

Proposatutako pirolisi-teknologiari dagokionez, Greeneren pirolisi operatiboaren erreferentzia Alacanteko bere instalazioetan duen lantegi pilotu bat da, eta, beraz, ezin da baztertu neurri industrialeko eskalan eginez gero zailtasun teknikoren bat agertzea. Horri gehitu behar zaio hondakin-paperaren errefusa ez dela hondakin bakarra eta osaceran alde handiak egon daitezke lote batetik bestera, horrek prozesuaren konplexutasuna areagotu egiten du eta kezka ere bai pyrogasean aurreikusitako kutsatzaileen kopuruari eta osagaiei dagokienez. Horregatik, eta prozesuari lotutako zalantza arintzeko, exijitu egin beharko litzateke sustatzaileak gutxienez 6 hilabeteko denbora-tarteetan lohien eta hondarren karakterizazioa izan dezala, osaceraren batez bestekoa lortzeko.

Gai horietako bakar bat ere ez da kontuan hartu IBB egiteko orduan, eta, jakina, ez zaie erantzun alegazioei emandako erantzunean.

**2.- Proiektuan zuzendu/aldatu/osatu beharreko alderdiak, IBB (Ingurumen-Baimen Bateratua) egiterakoan kontuan hartu ez direnak**

Atal honetan bildu ditugu baimendutako proiektuko zenbait arlo eta datu, hain zuzen ere, kontraesanen bat dutenak edo zalantzaren bat izan eta argitu direnak. Horrez gain, proiektuan eta ingurumen-inpaktuaren azterketan behar besteko zehaztasunez analizatu ez diren alderdiak aipatzen dira, eta organo eskudunak horiek guztiak proiektuan sartzeko eskatu behar luke, IBB eman aurretik.

o **Kudeatu beharreko produktu-motak. Hondakin onargarriak.**

Ingurumen-teknikariak bere txostenean azaltzen duen moduan, IBBren ebazpenak Hondakin Ez Arriskutsuen Kudeatzailearen baimena ematen du ondorengo hondakin-mota eta kantitateetarako:

<b>Hondakin Ez Arriskutsu onargarriak</b>				
<b>Hondakin motak</b>		<b>EHZ kodea</b>	<b>Urteko kopurua (t/urte)</b>	<b>Ehunekoa (%)</b>
<b>Izena</b>	<b>EHZ azalpena (MAM/304/2002 Aginduaren arabera)</b>			
<b>Hondakin-paperaren errefusa</b>	Paper- eta kartoi-hondarrekin egindako pastaren hondakinak, mekanikoki banatuak	03 03 07	45.320 (*1. oharra)	25-35
<b>Plastikoa</b>	Plastikoak	20 01 39		
<b>Biomasa</b>	Egur-azal eta -hondakinak	03 03 01		
<b>Paper-fabrikako araztegiko lohiak</b>	Efluenten in situ tratamenduko lohiak, 03 03 10 kodean zehaztutakoak ez direnak	03 03 11	62.004 (*1. oharra)	30-40
<b>Tinta-kentzeen lohiak</b>	Papera birziklatzetik datozen tinta-kentzeen lohiak	03 03 05	47.736 (*1. oharra)	30-40
<b>GUZTIRA</b>	<b>155.060</b>	<b>100</b>		

\*1. oharra: adierazitako kopurua aldakorra da merkatuaren arabera.

Proiektu teknikoak aukera ematen du, hondakin ez arriskutsuen kudeatzailearen baimen honen bidez, paperaren sektoreari hertsiki lotuta ez dauden hondakin-fluxuak termikoki tratatzeko, hala nola plastikoak (EHZ 20 01 39) eta egur-azal eta -hondakinak (EHZ 03 03 01), eta horrela baimentzen du ingurumen-organoak 2022ko apirilaren 8ko Ebazpenean; dena den, hiru korronteentzat denak batera hartuta gestionatzeko urteko gehieneko kopurua ezartzen bada ere (03 03 07, 20 01 39 y 03 03 11), ez du korronte bakoitzaren tratamenduaren urteko bolumenaren aurreikuspenik egiten.

Alde batetik, baimenaren xede den instalazioaren xedea, printzipioz, papergintzako sektoreko hondakinak kudeatzea dela kontuan hartuta, bi hondakin-korronte horiek sartzea, pirolisi-tratamendurako, baimenaren xedearekin kontraesanean dagoela dirudi. Bestalde, pirolisi-tratamenduaren diseinuan ez dira kontuan izan EHZ 20 21 39 eta EHZ 03 03 01 hondakin korronteen analitkarik eta ezaugarririk, ez eta pyrogasaren eta errektuntza-gasaren arazketa-teknologiaren diseinuan ere, eta ez denez inolako daturik ematen bi korronte horiek tratatzeko ahalmenez, bi korronte horiek hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko baimenean sartzeak (2022ko apirilaren 8ko Ebazpenean jasotakoak) ziurgabetasun gehiegi ditu ingurumenaren eta giza osasunaren babes-maila handia ziurtatzeko (ingurumen-baimen bateratuak berak hori defendatzen du bere helburuetan).

○ **Sortutako hondakinaren adierazpena:**

Proiektuan adierazten da sustatzailea gestioak egiten ari dela lortutako kare-materialak eta pirolisi-etapan sortutako *char*-ak hondakin-izaera gal dezaten, eta azpiproduktu balorizagarri kategoria izan dezaten, hondakinak izan ordez.

Kare-materialari dagokionez, sustatzaileak adierazi beharko luke zer EHZ kode ezarriko zaion azpiproduktu balorizagarritzat hartu ezin den bitartean, eta hondakin hori sortutako hondakin ez arriskutsuen adierazpenean sartu beharko luke (proiektuaren 5.2 atala), IBB eskatzeko aurkeztu den proiektuaren bertsioan ez baitago adierazita.

○ **Atmosferarako isurketen fokurak**

Teknikariak bere txostenean dioen moduan, IBBren Ebazpenean adierazten da atmosferara isurtzen duen foku bakarra egongo dela, tximinia alegia. Dena dela, aurkeztutako alegazioan adierazi zen beste foku batzuk ere bazirela eta sustatzaileak horiek adierazi behar zituela. Ingurumen-organoak ez ditu foku horiek IBBn deklaritzen, eta, horrez gain, horri buruz egindako alegazioa ere ez du justifikatu edo erantzun ere.

Gogoratzen da agirien azterketa teknikitik ondorioztatzen dela sustatzaileak adierazi beharreko beste foku hauek ere badirela:

- Kaltzio hidroxidoa, bikarbonato sodikoa, kare-materiala eta *char*-a biltegitratzeko siloen mahuka-iragazkien irteerako hodiak. Isurpen-foku difusoak lirateke eta partikulak isuri ditzakete.



- SCR sisteman Nox eraisteko erabilitako soluzio amoniakalaren deposituaren goiko zuloa. Foku ez sistemikotzat hartu behar litzateke, NH<sub>3</sub> isurtzeko potentziala duena.
- Unitate elektrogenoaren gasolioaren errekuntza-gasen tximinia. Foku ez sistemikotzat hartu behar litzateke, NO<sub>x</sub> eta CO isurtzeko potentziala duena.

■ **Kutsatzaileen isuriak atmosferara eta isurketa-fokuaren ezaugarriak tximinian:**

- Adierazitako isurketen balioei dagokienez, baimendutako proiektuak aurreikusten du bete egingo direla 2019/2010 EB Betearazpen Erabakian –hondakinak errausteko teknika erabilgarri onenak (TEO)– zehaztutako gehieneko emisio-balioak; dokumentu hori erreferentziatzen hartzen da hondakinak errausteko instalazioentzako baimenen baldintzak ezartzeko.

Aipatu behar da, 2019/2010 (EB) Erabakiak honako hau zehazten duela: “*serán las autoridades competentes las que deben fijar los valores límite de emisión que garantizan que, en condiciones normales de funcionamiento, las emisiones no superen los niveles asociados a las mejores técnicas disponibles que se establecen en las conclusiones sobre las MTD*”.

Horri dagokionez, berriz ere zuhurtzia-irizpidea aplikatuta eta proiektatutako instalaziotik hurbil etxebizitzak eta inguruan landa-lurzorua dagoela kontuan izanda, ingurumen-organoari eskatu genion ez jartzea emisio-balioen mugatzat 2019/2010 (EB) Betearazpen Erabakiak zehaztutako balio-tarteen goiko balioak, beheko balioak baizik, honako hauek, hain zuzen ere:

<b>Kutsatzailea</b>	<b>TEOen emisio-mailak 2019/2010 Erabakia</b>	<b>Proposatutako emisioen muga</b>
Partikulak	< 2 - 5 mg/Nm <sup>3</sup>	< 2 mg/Nm <sup>3</sup>
Azido Klorhidrikoa (HCl)	< 2 - 6 mg/ Nm <sup>3</sup>	< 2 mg/Nm <sup>3</sup>
Azido Fluorhidrikoa (HF)	< 1 mg/ Nm <sup>3</sup>	< 1 mg/ Nm <sup>3</sup>
Sufre-oxidoa (SO <sub>2</sub> )	5 - 30 mg/ Nm <sup>3</sup>	< 5 mg/ Nm <sup>3</sup>
Nitrogeno-oxidoak (NO <sub>x</sub> )	50 - 120 mg/ Nm <sup>3</sup>	< 50 mg/ Nm <sup>3</sup>
Karbono monoxidoa (CO)	10 - 50 mg/Nm <sup>3</sup>	< 10 mg/ Nm <sup>3</sup>
Amoniakoa (NH <sub>3</sub> )	2 - 10 mg/ Nm <sup>3</sup>	< 2 mg/ Nm <sup>3</sup>
COVT	< 3 - 10 mg/Nm <sup>3</sup>	< 3 mg/ Nm <sup>3</sup>
Kadmioa + Talioa (Cd + Tl)	0,005 -0,02 mg/Nm <sup>3</sup>	< 0,005 mg/Nm <sup>3</sup>
SB + As + Pb + Cr + Co + Cu + Mn + Ni + V	0,001 -0,3 mg/Nm <sup>3</sup>	< 0,001 mg/Nm <sup>3</sup>
Dioxinak eta furanoak (PCCD/F)	0,01 - 0,04 ng I-TEQ/Nm <sup>3</sup>	< 0,01 ng I-TEQ/Nm <sup>3</sup>
Merkurioa (Hg)	< 5 - 20 µg/Nm <sup>3</sup>	< 5 µg/Nm <sup>3</sup>

Beste alde batetik, adierazitako isurketen balioei dagokienez, akats bat antzeman zen –eta ebazpenean ez da ezer aipatu– kutsatzaile hauetarako aitortutako emisioen unitateetan:

Kutsatzailea	Adierazitako emisio-mugak eta unitateak	Aplikatu beharreko emisio-muga eta unitateak
Dioxinak eta furanoak (PCCD/F)	< 0,04 mg/Nm <sup>3</sup>	< 0,04 ng I-TEQ/Nm <sup>3</sup>
Merkurioa (Hg)	< 20 mg/Nm <sup>3</sup>	< 20 µg/Nm <sup>3</sup>

Proiektuak, halaber, adierazi beharko lituzke kutsatzaileen isurketen balioek aplikagarri dituzten erreferentzia-baldintzak, hau da: gas lehorra, 273,15 K-ko temperatura eta 101,3 kPa-ko presioa, eta % 11 oxigeno gas lehorraren gainean.

- Maila altuko ingurumen-babesa bermatu ahal izateko, alegazioetan eskatu zen exijitu dadila isurketen monitorizazioa 815/2013 Errege Dekretuaren arabera egitea:
  - Kutsatzaileen neurketa etengabea: partikulak, NO<sub>x</sub>, CO, COT, HCl, SO<sub>2</sub> eta HF. Era berean, konposatu organiko lurrunkor ez metalikoen (KOLEM) neurketa etengabea eskatzen dugu.
  - Prozesuko beste parametro batzuen neurketa etengabea: errekuntza-ganberaren barruko temperatura, eta, O<sub>2</sub> gasen kasuan, presioa, temperatura eta hezetasun-maila.
  - Metal astunak, dioxinak eta furanoak gutxienez hiru hilean behin neurtzea.

Horri buruz ez da ezer aipatu.

- Tximiniaren irteerako gasen adierazitako temperaturetan kontraesanak antzeman eta adierazi ziren.

Foku horren ezaugarriak dituen taulak (Proiektuko 4.1.2.1 atala) adierazten du gasen irteerako temperatura 60 °C dela baina agiriaren zenbait ataletan 180-200 °C arteko temperaturak adierazten ditu, SCR prozesurako behar den temperatura, hain zuzen ere. SCR sistemaren irteerako gasen aprobetxamenduko azken etaparik adierazten ez denez, tximinian espero den temperatura SCR prozesuarenaren antzekoa izango da, eta, horrenbestez, sustatzaileak aldatu egin behar luke foku honetarako adierazitako gasen temperatura.

- **Atmosferarako isurketen fokuak**

Ingurumenari dagokionez baimendutako proiektuan atmosferara isurtzeko foku bakarra deklaritzen da, tximiniari dagokiona.

Dena dela, agirien azterketa teknikitik ondorioztatzen da sustatzaileak adierazi beharreko beste foku hauek ere badirela:

- Kaltzio hidroxidoa, bikarbonato sodikoa; kare-materiala eta *char*-a biltegitratzeko siloen mahuka-iragazkien irteerako hodiak. Isurpen-foku difusoak lirateke eta partikulak isuri ditzakete.
- SCR sisteman Nox eraisteko erabilitako soluzio amoniakalaren deposituaren goiko zuloa. Foku ez sistemikotzat hartu behar litzateke, NH<sub>3</sub> isurtzeko potentziala duena.
- Unitate elektrogenoaren gasolioaren errekuntza-gasen tximinia. Foku ez sistemikotzat hartu behar litzateke, NOx eta CO isurtzeko potentziala duena.

Gai hau ez da aintzat hartu; aitortu gabeko isurketa-foku gehiago baimendu dira.

- **Tximiniaren altuera justifikatu:**

Baimendutako proiektuak tximiniaren gutxieneko altuera 16 metrokoa izatea justifikatzen du, Eusko Jaurlaritzaren JT-07 Jarraibide Teknikoan adierazitako irizpideen arabera. Irizpide hori Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren uztailaren 11ko 2012 Agindutik aterata dago (AGINDUA, 2012 uztailaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena. Honen bidez, jarraibide teknikoak ematen dira Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua garatzeko).

Instalazioetatik gertu etxebizitza-erabilerak eta nekazaritzako ustiategiak daudenez, exijitu beharrekoa zen sustatzaileak ingurumen-baimen bateratua eskatzeko proiektua osatu dezala kutsatzaileen sakabanaketaren modelizazioaren azterketarekin. Azterketa horretan, ondorioztatu beharko du ea proposatutako 16 metroko tximiniarekin betetzen diren instalazioaren inguruetako immisio-balioen mugako kontzentrazioak, indarrean dagoen araudiak ezarritakoak, edo ea altuera handiagoko tximinia jarri behar den kutsatzaileak errazago barreiatzeko eta inguruan immisio-balioen mugako kontzentrazioak betetzeko.

- **Usaina igortzea:**

Proiektuak ez du inolako neurrik aurreikusten tratatutako hondakinek sortu ditzaketen usainen kontra. Ingurumen-organoak, gainera, ustiapen-fasean usainik egoteko arriskua kategorikoki baztertzen du IBB Ebazpenean (*"Por otra parte, se debe señalar que entre los procesos que se autorizan en la instalación ninguno produce olores"*).

Paper-fabriketako lohiek materia organikoa dutela kontuan hartuta, uste dugu hondakin-fluxu horrek usaina bota dezakeela. Eta kasu honetan honек sortzen digu kezka: hondakin-paperaren errefusa eta

lohiak biltegitratzeko erabiliko den hondakinen harrera-eraikinak irekidurak ditu bi fatxadatan, eta ingurura usaina igortzeko arriskua egon daiteke.

Hori dela eta, exijitu genuen sustatzaileak usainen modelizazio-azterketa bat egitea, instalazioaren inguruari eragozpenik ez sortzeko, prozesatuko diren hondakinak eta instalazioaren konfigurazioa (harrera-lekuaren tipologia, aire zabalean prozesatzean ihes egin dezaketen emisioak...) kontuan hartuta.

Usainen azterketa zeharo eztabaida ezina izango ez balitz instalazioaren ingurura igorri ahal diren usainei buruz, proiektuak neurri gehigarriak aurreikusi beharko lituzke emisio-arriskua minimizatzeko; besteak beste, hauek:

- Hondakinen harrera-eraikina itxi eta behe-presioan edukitzea, eta nabeko aireztapeneko airea erabiltzea pyrogasaren errekuntza-prozesuan ekarpeneko airea izateko.
- Lehortegiak iragazgaitzak direla bermatzea ihes egin dezaketen lurrunen emisioekiko, eta korrante hori erabiltzea pyrogasaren errekuntza-prozesuan ekarpen-aria izateko.

Gogoeta horiekin lotuta, proiektu teknikoaren TEOen justifikazioa eguneratu beharko litzateke, zehazki:

- Hondakinak tratatzeko erreferentziako dokumentua:
  - 10. TEO. Usainen igorpenen monitorizazioa: TEO hau aplikagarria izan daiteke, nahiz eta proiektuak baztertu egiten duen ustiaketa-fasean usainek eragozpenak sortuko dituztenik. Edozelan ere, usainen modelizazioaren azterketa egin beharko litzateke, aplikatuko ez dela justifikatzeko.
  - 12. TEO. Usainen igorpena; 13. TEO. Usainen igorpena murriztea; 14. TEO. Atmosferarako isurpen difusioak murriztea: TEO hau aplikagarria izan daiteke, nahiz eta proiektuak baztertu egiten duen ustiaketa-fasean usainek eragozpenak sortuko dituztenik. Edozelan ere, usainen modelizazioaren azterketa egin beharko litzateke, aplikatuko ez dela justifikatzeko.

• **Zaratak:**

Sustatzaileak hitzematzen du portuko azpiegiturari eta jarduera berriei aplikatu beharreko zaraten gehieneko immisio-balioak beteko dituela (B motako eremu akustikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoa). Gehieneko balioak betetzen dituela frogatzeko, Sustatzaileak hitzematzen du zaraten azterketa egingo duela, instalazioa funtzionamenduan hastean izan daitezkeen benetako igorpenak oinarri hartuta.

Instalazio eta ekipo gehienak aire zabalean daudela eta instalazioetatik oso hurbil etxebizitzak daudela kontuan hartuta, sustatzaileak zaraten modelizazio-azterketa egin beharko luke, indarreko araudiak zehaztutako gehieneko igorpen-balioak betetzen direla egiaztatzeko, eta, behar izanez gero, neurriak ezarri beharko lituzke horiek betetzen direla justifikatzeko (kokapenaren aukeraketa egokia eta zarata gehien igor dezaketen ekipoak kapsulatzea).



○ **Hondakin-uren kudeaketa eta tratamendua:**

Baimendutako proiektuak ez du hondakin-paperaren errefusaren eta lohien lehorketa-prozesuetan sortutako material trinkotuaren analitika barne hartzen, eta fluxu hori isuri aurretik tratatzera bidalitako hondakin-uren % 80 baino gehiago da.

Gomendagarria litzateke material trinkotu horien analitika bat izatea, egiaztatzeko aurreikusitako hondakin-uren tratamendua egokia dela eta ur-fluxu horiek kontrolatzeko neurriak ezarri behar ote diren zehazteko.

Beraz, sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioa honekin osatu behar zukeen:

- Hondakin-paperaren errefusaren eta lohien lehorketa-prozesuetan sortutako material trinkotuaren analitikak.
- Bildutako euri-uren (estalkietan, bideetan eta zoladuretan bildutakoa) tratamendutaren definizioa.

Halaber, proiektuak sare bereizi bat aurreikusi behar zukeen isuriak jasan ditzaketen aire zabaleko prozesatze-eremuetako urak biltzeko (gutxienez, errektiboen eta gasen arazketak eragindako hondakinen biltegitratze-eremuetarako eta kare-materialen eta *char*-aren biltegitratze-eremuetarako).

Bestalde, prozesuko hondakin-urtzat hartu behar ziratekeen isuriak izan ditzaketen prozesuko ekipo jakin batzuk dauden tokietan bildutako euri-urak edo leku horiek garbitzeko erabilitakoak, honako hauek gutxienez:

- Errektiboen eta gasen arazketak eragindako hondakinen biltegitratzea.
- Sortutako hondakinak biltegitratzeko siloak.
- Prozesuko beste puntu batzuk, hondakinen edozein isuri jasan dezaketenak.

Gai hau ez da kontuan izan errekurritzen den ebazpenean.

○ **Lohien kaltzinazio-prozesuko tenperatura:**

Pyrogasaren errektuntza-prozesua aurretiko errektuntza-ganbera batean egiten da, eta baimendutako proiektuak dio ganbera horretan errektuntza-gasak 550 °C-an lortuko direla.

Ulertzen dugu errektuntza-gasen tenperatura baxu hori errektuntzaren bidez lortutako gasak ondoren aire freskoa injektatuta diluituz gero soilik lortu daitekeela, horrek aukera emango luke eta gasen tenperaturari egonkor eusteko lohien kaltzinaziorako behar diren baldintzetan. Hori gertatzen ez bada, erregaiaren errektuntza oso partziala izango litzateke, eta tximiniatik gas erregai bat isuriko litzateke.

Dena dela, sustatzaileak zehaztuta eta argituta izan beharko zituen kaltzinazio-etapako pyrogasaren errekuntza-baldintzak.

○ **Ustiapen-faseko zaraten eta usainen kontingentzia-plana:**

Ingurumen Eraginaren Azterlanean ustiapen-faserako aurreikusita dauden neurri zuzentzaile eta prebentiboak (baimenaren xede direnak) osatu behar ziratekeen (aurrez adierazi zen moduan) ustiapen-faseko zaraten eta usainen Kontingentzia Plan batekin; plan horren helburua izango litzateke ezartzea ea zein neurri hartuko liratekeen instalazioaren ustiapen-fasean zaraten eta/edo usainen arloan eraginak sortuko balitzaizkio hartzaile sentikor bati.

Kontingentzia-plan horren ezarpena ziurtatzeko, instalazioaren beraren kudeaketa-sisteman txertatuta egon beharko zen.

○ **Teknika erabilgarri onenen (TEO) ezarpena:**

Atal honetan aipatu ziren proiektuan teknologia erabilgarri onenei buruz emandako justifikazio batzuei dagozkien alderdiak (eta ez dira kontuan hartu).

○ **Erreferentziatzko dokumentua zementua, karea eta magnesio oxidoa ekoizteko:**

- 2. TEO. Zarata: Justifikatzen da neurriak hartuko direla zarata-igorpenak murrizteko. Ekipo gehienak aire zabalean edo itxita ez dauden eraikinetan daudenez, beharrezkotzat jotzen dugu instalazioak ingurunean duen soinu-inpaktuaren ebaluazioa egitea modelizazioaren bidez.
- 32. TEO. Emisioen monitorizazioa: *“Kutsatzaileen isuriak atmosferara eta isurketa-fokuaren ezaugarriak tximinian”* izeneko puntuan adierazi den bezala, eskatzen da exijitu dadila atmosferarako isurien edo emisioen monitorizazioa egitea 815/2013 Errege Dekretuaren arabera; izan ere, proiektu teknikoan adierazitako monitorizazioa ez da berdina.
- 38. TEO. Labeen hondakinak erabiltzeagatik sortutako emisioak murriztea: Kontraesan bat hauteman dugu pyrogasaren errekuntza-tenperaturari dagokionez. Izan ere, puntu honetan 1.200 °C-koa dela zehazten bada ere, dokumentuaren gainerako puntuetan 850 °C / 550 °C-koa dela zehazten da, prozesuan izandako aplikazioaren arabera.
- 45. TEO. Labearen errekuntza-gasen NOX emisioak; 47. TEO. Labearen errekuntza-gasen SOX emisioak; 48. TEO. Labearen errekuntza-gasen CO

emisioak; 50. TEO. Labearen errektuntza-gasen TOC emisioak; 51. TEO. Labearen errektuntza-gasen HCl / HF emisioak; 52. TEO. Labearen errektuntza-gasen dioxinen/furanoen emisioak; 53. TEO. Metal astunen emisioa labearen errektuntza-gasetan:

*“Kutsatzaileen isuriak atmosferara eta isurketa-fokuaren ezaugarriak tximinian”* izeneko atalean azaldu den bezala, eskatzen da ingurumen-organoak emisio-balioen mugak ezartzerakoan ez ditzala ezarri 2019/2010 (EB) Betearazpen Erabakiak zehaztutako balio-tarteetako goiko balioak, beheko balioak baizik.

○ Hondakinak tratatzeko erreferentziako dokumentua:

- 6 / 7 TEO. Uretara egindako isurketen monitorizazioa: Justifikatu egin behar da zergatik ez den TEO hau aplikatzen.
- 10. TEO. Usainen igorpenen monitorizazioa: TEO hau aplikagarria izan daiteke, nahiz eta proiektuak baztertu egiten duen ustiaketa-fasean usainek eragozpenak sortuko dituztenik. Edozelan ere, usainen modelizazioaren azterketa egin beharko litzateke, aplikatuko ez dela justifikatzeko.
- 11. TEO. Kontsumoen monitorizazioa: Justifikatu egin behar da zergatik ez den TEO hau aplikatzen.
- 12. TEO. Usainen igorpena; 13. TEO. Usainen igorpena murriztea; 14. TEO. Atmosferarako isurpen difusioak murriztea: TEO hau aplikagarria izan daiteke, nahiz eta proiektuak baztertu egiten duen ustiaketa-fasean usainek eragozpenak sortuko dituztenik. Edozelan ere, usainen modelizazioaren azterketa egin beharko litzateke, aplikatuko ez dela justifikatzeko.
- 19. TEO. Ur-kontsumoa eta hondakin-uren sorkuntza murriztea; 20. TEO. Uretara egindako isurpenak murriztea; 21. TEO. Istripuek ingurumenean eragin ditzaketen ondorioen prebentzioa; 22. TEO. . Istripuek ingurumenean eragin ditzaketen ondorioen prebentzioa; 23. TEO. Energia-eraginkortasuna; 24. TEO. Ontziak berrerabilteza:

Justifikatu behar da zergatik ez diren TEO horiek aplikatzen.

- Erreferentziako beste dokumentu batzuk: Pyrogasaren errekuntza-prozesua azkenik errausketatzat joz gero, aplikagarriak izango zaizkio 2019/2010 (EB) Betearazpen Erabakian hondakinak errausteko jasotako TEOak.

### **3.- Jendurrean jarritako proiektuan hautemandako desadostasun eta/edo hutsuneak, errekurritzen den ebazpenean jaso ez direnak**

Honako hauek adierazi ziren –ez dira erantzun eta hala ere IBB baimena eman da–:

- Proiektuaren zenbait ataletan desadostasunak aurkitu dira SCR Sistemaren lan-tenperaturei (180-200 °C) eta tximiniatik irtendako gasen irteera-tenperaturari (240 °C) buruz.
- Askotan aipatzen da sodio karbonatoa ( $\text{Na}_2\text{CO}_3$ ) erabiliko dela gas azidoak arazteko, baina deklaraturakoaren arabera erabiliko den errektiboa sodio bikarbonatoa ( $\text{NaHCO}_3$ ) izango da.
- Inkoherentzia posible batzuk hauteman dira instalazioan sartutako hondakin-paperaren errefusaren ezaugarrien eta aurkeztutako masen balantzearen artean:
  - Hondakin-paperaren errefusari buruz aurkeztutako karakterizazioaren arabera, tratatu gabeko sarrerako hondakinean % 8,3 PVC izango dela deklaritzen da (3.735 t/u inguru; eta guztira 45.320 t/u hondakin-paperaren errefusa).

Masei buruz emandako balantzearen arabera, 1.830 t/u PVC inguru banantzen dira. Beraz, lehortegira eramandako hondakin-paperaren errefusak 1.910 t/u PVC izango du (pisuaren % 5, gutxi gorabehera) eta, lehortu eta gero, zenbatetsi dezakegu pirolisira sartutako hondakin-paperaren errefusaren PVC pisua guztiaren % 9-10 izango dela.

Bestalde, proiektuak adierazten du, araztu aurretik pyrogasaren % 0,41 Kloroa dela, eta balio horrek baxua dirudi, kontuan hartuta aurretik aipatutako hondakin-paperaren errefusaren PVC ehunekoa.

Halaber, pirolizatzailean sartuko den hondakinarentzat % 0,976ko kloro-kontzentrazioa baliostean da 51. orrialdean –eta < % 1 124. orrialdean–, hondakin-paperaren errefusaren PVC edukitik datorrena. Kontzentrazio hori eta hondakin-paperaren errefusaren karakterizazioan zehaztutakoa antzekoak dira, baina, horrez gain, zehazten da instalazioan PVCa banantzeko sistema optiko bat dagoela, % 95eko eraginkortasuna duena. Hondakin-paperaren errefusatik PVCa banantzeko sistema horrek % 95eko eraginkortasuna edukiz gero, nola da posible kloroaren kontzentrazioa antzekoa izatea errefusean, hondakinean eta pirolizatzailean sartzean?

- Tratatu gabeko hondakin-paperaren errefusaren % 0,2 metalek osatzen dute (90 t/u inguru; eta guztira 45.320 t/u sartzen dira); eta adierazten da aurre-tratamenduan 1.956 t/u material ferriko eta 3.422 t/u material ez-ferriko



berreskuratzen direla, eta balio horiek sarrerako hondakinean dagoen kopurua baino askoz handiagoak dira.

- Erregaien kontsumoari dagokionez, ez da urtebeterako espero den gas naturalaren eta gasolioaren kontsumoa adierazten.
- Lohien eta hondakin-paperaren errefusaren karakterizazioa osatu gabe dago (35-36 or.). Materiaren % 6 baino pixka bat gehiago falta da. Adierazi behar da karakterizazioa oinarri lehorrean egin den eta zer arau erabilita egin den.
- Proiektuak zehazten du pyrogasa garbitzeko sisteman  $\text{Ca}(\text{OH})_2$  (kare hila) sartu eta  $\text{CaCl}_2$ ,  $\text{CaS}$  eta  $\text{CaSO}_3$  bihurtzen dela. Eta  $\text{CaO}$  (kare bizia) ere sortu beharko litzateke,  $512\text{ }^\circ\text{C}$ -tik aurrera erreakzio hori izaten delako eta prozesua  $600\text{ }^\circ\text{C}$ -an egiten dela aipatzen delako.
- Materiaren balantzean SCR prozesurako katalizatzailea eta gas naturala falta dira. Halaber, energiaren balantzean gas naturala falta da.
- 107-108. orrialdeetan zehazten da kaltzinaziorako behar den beroa hondakinetatik bakarrik lortzen dela. Hori ez da egia, gas naturala (erregai fosila) ere erabiltzen baita prozesua aktibatzeke (120. or.).
- Lehengaien eta osagarrien biltegitratze eta kontsumoei dagokienez, ez da SCR prozesurako katalizatzailea aipatzen. Horrez gain, agortutako katalizatzailearen kudeaketa ere zehaztu beharko da.
- Erabilitako ikatz aktiboa jasotzen da hondakin moduan, eta aurreikusitako prozesuak kontuan hartuta, ulertzen da instalazioan ez dela hondakin-mota hori sortzen. Izan ere, ikatz aktiboa errektibo gisa soilik erabiltzen da gasen arazketa-fasean, eta, beraz, mahuka-iragazkian banantzen da gasen tratamendurako erabilitako gainerako hondakinekin, eta multzoa hondakin arriskutsutzat jo behar da (EHZ 19 01 17).
- Sortutako hondakinak biltegitratzeko sistemei dagokienez, dokumentuan lortutako kare-materiala biltegitratzeko siloak sartu beharko lirateke, oraindik ere material hori hondakintzat jotzen baita.



- Prebentzio-neurriei eta normala ez den egoeraren funtzionamendu-baldintzei buruzko atalean, instalazioa martxan jarri eta gelditzeko prozeduraren deskribapena oso orokorra da; bi prozeduren deskribapena erantsi beharko litzateke, instalazioaren askotariko prozesuetan (hondakin-paperaren errefusaren aurre-beroketa, hondakin-paperaren errefusaren pirolisia, pyrogasen tratamendua, pyrogasaren errekuntza, pyrogasaren errekuntza-gasen tratamendua, lohien lehorketa eta kaltzinazioa) jarraitu beharreko urratsak zehazki zehazten dituena.

Halaber, deskribatu beharko litzateke zer segurtasun-neurri dauden eta zer egin beharko litzatekeen instalazioan dokumentuan aurreikusten ez diren ohiz kanpoko funtzionamenduko beste egoera batzuk gertatuz gero (elektrizitatearen, uraren edo erregai osagarriaren horniketak huts eginez gero egin beharrekoa, ikuskapen- eta kontrol-sistemak huts eginez gero egin beharrekoa...).

- Ingurumen-inpaktuaren azterketako ingurumen-zaintzako programan, jardueraren ingurumen-kontrolerako adierazleak proposatzen dituen taularen barruan:

- Lehengaien atalean (tratatutako hondakinak) HOS (EHZ 200301) frakzioa deklaritzen da, instalazioak hondakin-mota hori tratatu behar ez badu ere. Akats bat dela uste dugu, baina erreferentzia hori kendu behar da.
- Hondakinen ekoizpenei buruzko atalean, kare-materialaren eta *char*-aren EHZ kodea agertu behar da.
- Atmosferarako emisioen atalean, errekuntza-gasetarako tximiniako fokuan kontrolatu beharreko kutsatzaileak zehazten dira. Horiez gain, foku ez sistemikoetan kontrolatu beharreko kutsatzaileak zehaztu beharko lirateke (larrialdietarako unitate elektrogenoa eta soluzio amoniakalaren deposituaren goiko zuloa).

- 10. eranskina\_Segurtasun-fitxak atalean:

- Urearen fitxa sartu da (% 99ko kontzentraziokoa), eta proiektuaren gainerako dokumentazioan soluzio amoniakala (% 18-30) adierazten da NOx-en SCR prozesurako erreaktibo gisa.
- Produktu hauen segurtasun-fitxak gehitu beharko lirateke:
  - Ura tratatzeko instalazioaren erreaktiboak (malutatzailea, pHa zuzentzeko erreaktiboak, HCl eta NaOH adibidez,...)

- Gasolioa.

Gai horiei dagokienez, adierazi den bezala, puntu batzuk modu orokorrean tratatu dira errekurritutako ebazpenean, betiere udal honenak ez diren beste alegazio batzuei erreferentzia eginez; eta baliteke – errespetu guztiarekin– gureak duten xehetasun teknikoaren maila ez izatea; eta beste batzuk, berriz, zuzenean alde batera utzi dira, honako hau adibidez: 815/2013 ED ez dela aplikagarria argudiatzeko justifikazio “harrigarria”ri buruz alegatutakoa, 26.2 artikulua babesean; izan ere, IBB jaso duen proiektuak pyrogasa erre aurretik arazteko sistema bat aurreikusten du kaltzio-hidroxidoaren eta iragazki zeramiko baten bidez; hortaz, proiektuak berak ematen dituen datuen arabera, ezin da esan araztutako pyrogasaren errekontza-gasak isuriei dagokienez gas naturalaren errekontzatik lortutakoen parekoak izan daitezkeenik, hori baita 26.2 artikulua aurreikusten duen salbuespena.

Are gehiago, 26.2 artikulua berak, salbuespen hau ezartzeko exijitzen du instalazio-arduradunak hori frogatzen duten neurketak egin behar dituela, eta horretarako gasak etengabe neurtzeko sistema bat izan beharko du, eta aztertutako proiektuan ez da halakorik aurreikusi.

#### SEIGARRENA. - ONDORIOA.-

Azken batean, **kontua ez da ez direla aintzat hartu aurkeztutako proiektuaren inkongruentziak eta hutsuneak, buru naizen udalak adierazitakoak** (proiektu hori baimendu egin da, eta ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena eta ondoriozko ingurumen-baimen integratua ekarri ditu), **baizik eta jarduera bat baimendu dela, kare-materiala ekoizteko instalazioa, benetan ezarri nahi denarekin bat ez datorrena, hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko azpiegitura baita ezarri nahi dena**, eta hori guztia, agerian geratu den bezala, **bai izapidetutako proiektuaren aurreikuspenak ikusita, aurkezten ditugun alegazioetan azaltzen direnak (LER kodeak, etab.), bai aztertzen ari garen ebazpenaren beraren edukia ikusita, hondakinen kudeaketarako baldintzak ezartzen baititu (C.3 puntua).**

Egia da, errespetu osoz diogu, kontraesana “barregarria” dela egintzan bertan, baina **barregarria izatetik harago doana da adieraztea ez dagoela kontrako txostenik erabileraren hirigintza-bateragarritasunari dagokionez, eta, halakorik izan balitz, espedientea artxibatu egingo zela, Legeak eskatzen duen bezala; argi eta garbi dagoenean bai dagoela, errekurritu dugun egintzak bere aurrekarietan aitortu bezala.**

**Ezin dira alde batera utzi erabakigarriak diren egitateak administrazio jarduleak administrazio-espediente bat bere nahierara ebazteko, eta abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoaren aurka** (1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena); izan ere, inolako zalantzarik gabe, lege horren arabera, **“artikulu horretan araututako hirigintza-txostena ezezkoa bada, -eta, noiznahi egiten dela ere, ingurumen baimen integratua eman aurretik jasotzen bada autonomia-erkidegoan-, ingurumen-baimen integratua emateko organo eskudunak prozedura amaitzeko ebazpen arrazoitua emango du eta jarduketak artxibatu egingo ditu”.**



Hori guztia, noski, legezketasunaren aurkakoa dela jakinda egintza bat eman nahi ez bada behintzat.

Adierazitakoagatik,

**ESKATZEN DUT**, idazki hau aurkeztutzat jota, onar dezazula eta Gorako Errekurtsoa aurkeztutzat jo dezazula Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2022ko apirilaren 8ko Ebazpenaren aurka (haren bidez, ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena egin zen eta aztergai dugun ingurumen-baimen integratua eman zen), eta idatziaren gorputzean adierazitakoarekin bat etorritz, eta ebazpenaren betearazpena eten ondoren, baliogabetu dezazula.

**BIGARRENA:** Gora jotzeko errekurtsu hori Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuari jakinaraztea.”

Begara, 2022ko maiatzaren 6a  
BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA



*Le comunico que el Alcalde ha emitido el 6 de mayo de 2022 el siguiente Decreto:*

“Don (DNI: ), de la empresa “Tinko Ingeniaritza SLU” (NIF: B-75013896), en representación de la empresa “Greene Waste To Energy SL” (B-54543525), presentó –con registro municipal de entrada de 11 de junio de 2021– consulta urbanística para la implantación de una planta de producción ecológica de cargas minerales para la industria en la parcela H del polígono Larramendi (exp. 351/21 – 2021HIKO0020-).

De conformidad con el informe de la arquitecta municipal jefa del servicio, mediante Decreto de Alcaldía de 23 de julio de 2021 se resolvió:

*1.- Aprobar el informe de la arquitecta municipal jefa el servicio y, por lo tanto, comunicárselo, a modo de respuesta, a don de la empresa “Tinko Ingeniaritza SLU”, en representación de la empresa “Greene Waste To Energy, SL”.*

*2.- Notificar la respuesta (junto al informe de la arquitecta municipal jefa el servicio) a don de la empresa “Tinko Ingeniaritza SLU”, en representación de la empresa “Greene Waste To Energy, SL”.*

El 23 de setiembre de 2021 fue publicado en el Boletín Oficial de la CAV el anuncio del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco, por el que se sometió a información pública el proyecto técnico y estudio de impacto ambiental presentado por la empresa “Valogreene Paper BC, S.L.” para la solicitud de la autorización ambiental integrada de la actividad de gestión de residuos no peligrosos en el término municipal de Bergara.

La arquitecta municipal jefa del servicio emite con fecha 25 de octubre de 2021 nuevo informe en el que advierte que la solicitud del informe de compatibilidad urbanística se hizo en base a la actividad: *“Implantación de un establecimiento industrial dedicada a la actividad de Producción ecológica de cargas minerales para la industria”.*

En el citado informe de la arquitecta municipal manifiesta que el proyecto con la referencia 21-A058 redactado por la empresa “Ondoan S. Coop.” que se presenta para la solicitud de la autorización ambiental integrada referencia: *“Proyecto técnico y estudio de impacto ambiental para la obtención de la autorización ambiental integrada y declaración de impacto ambiental para la actividad de tratamientos de subproductos de la industria del papel de la planta de Valogreene Paper BC, S.L. en Bergara”.*

Por otro lado, la arquitecta municipal reseña en el expresado informe que el anuncio del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco publicado en el Boletín Oficial de la CAV el pasado 23 de setiembre señala que se “somete a información pública el proyecto técnico y estudio de impacto ambiental presentado por la empresa “Valogreene Paper BC, S.L.” para la solicitud de la autorización ambiental integrada de la actividad de gestión de residuos no peligrosos en el término municipal de Bergara.”

Mediante Decreto de Alcaldía de 02-11-2021 –a la vista del informe emitido el 25-10-2021 por la arquitecta jefe y el informe emitido el 29-10-2021 por el letrado asesor externo (ratificado en la misma fecha por el letrado municipal), y tras conocer la actividad que la empresa “Valogreene Paper BC SL” pretende establecer en el expediente sometido a tramitación (BOPV de 23-

09-2021)–, se resolvió dejar sin efecto el informe de compatibilidad urbanística emitido mediante Decreto de Alcaldía de 23-07-2021, considerando que la actividad reseñada para la emisión del citado informe no coincide con la actividad declarada en el expediente de autorización ambiental integrada, y a continuación se instó al promotor a que realizara una nueva solicitud de informe de acuerdo con la actividad que realmente pretende desarrollar.

Este nuevo Decreto ha sido comunicado al Director de Calidad Ambiental a los efectos de la acreditación en el expediente del informe de compatibilidad ambiental exigido por el art. 15 del Real Decreto Legislativo 1/2016. Igualmente ha sido ya notificado a los alegantes/recurrentes comparecidos en el expediente.

El 8 de noviembre de 2021 fue publicado en el Boletín Oficial del País Vasco el anuncio del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco por el que se amplía en 15 días hábiles el plazo de exposición pública del proyecto técnico y del estudio de impacto ambiental presentado por la empresa "Valogreene Paper BC, S.L." para solicitar la autorización ambiental integrada de la actividad de gestión de residuos no peligrosos en el término municipal de Bergara (dando así respuesta a la solicitud de ampliación realizada por el Ayuntamiento de Bergara con registro municipal de salida de 6 de octubre).

